

Euskal AEn ari diren enpresen %97,6k hemen dute egoitza

Errotaziorik handiena, Merkataritza, garraioa eta ostalaritza, alden %29,5, baje %33,1

Euskal AEn 2017ko hasieran 158.086 enpresa ari ziren; %97,6k erkidegoan zuen egoitza, Eustaten arabera. Enpresok 175.393 establezimendutan ari ziren (lantegiak, dendak, bulegoak...); %14,2 Araban; %51,8 Bizkaian; %34,0 Gipuzkoan.

Aurreko urtearen aldean, Administrazio publiko, hezkuntza eta osasungintza sektorean establezimenduak %2,1 gehiago dira; Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza %1,7; Informazio eta komunikazioetan %1,5; Zerbitzuen beste jardueretan %1,2; Higiezinaren jardueretan (%1,1); Jarduera profesional eta lagungarrietan %0,6. Establezimendu gutxiago: Industrian (%-2,6); Finantza eta aseguruetan (%-1,8); Merkataritza, garraioa eta ostalaritza (%-0,9); Eraikuntzan (%-0,6). Guztira, %0,2 establezimendu gutxiago.

Establezimendu kopurua, jarduera-adar eta urte arteko aldakuntza-portzentajearen arabera. 2017/01/01

	Euskal AE		Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Guztira	175.393	-0,2	24.870	0,4	90.884	-0,1	59.639	-0,4
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	6.008	1,7	2.145	10,1	1.938	1,1	1.925	-5,7
Industria, energia eta saneamendua	11.648	-2,6	2.009	-1,2	5.007	-3,4	4.632	-2,3
Eraikuntza	20.496	-0,6	2.574	-1,6	10.657	0,0	7.265	-1,3
Merkataritza, garraioa eta hostalaritza	66.040	-0,9	8.789	-0,9	35.357	-1,1	21.894	-0,7
Informazioa eta komunikazioak	3.365	1,5	408	2,3	1.923	2,5	1.034	-0,7
Finantza jarduerak eta aseguruetoak	4.786	-1,8	676	-3,2	2.542	-2,0	1.568	-0,8
Onibar-jarduerak	3.047	1,1	212	-0,5	1.810	2,5	1.025	-1,1
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	28.564	0,6	3.833	0,9	15.144	0,3	9.587	0,8
Herri administrazioa, hezkuntza eta osasuna	18.077	2,1	2.390	0,9	9.639	2,2	6.048	2,4
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	13.362	1,2	1.834	0,9	6.867	2,0	4.661	0,2

Iturria: Eustat. Jarduera ekonomikoen direktorioa

Establezimendurik gehien, Merkataritza, garraio eta ostalaritzak, %37,7; Jarduera profesional eta lagungarriak %16,3; Eraikuntzak %11,7.

Establezimenduen tamainaren arabera, 2016an, aurreko urtean bezalatsu. Apenas 2.385 establezimenduak -%1,4k- dauzkaten 50 langile edo gehiago; hauen enplegua guztiaren %39,9. 129.892 establezimendu, ia hiru laurden, ez dira 3 lanpostura heltzen eta enplegu guztiaren %18,3 bakarrik hartzen dute.

Establezimenduen jarduera-adarraren arabera, batez besteko tamainaz, enplegu-kontzentrazioa handiena, bai Euskal AEn, bai lurraldeetan, Industria, energia eta saneamenduan da. Euskal AEn establezimenduko batez besteko tamaina 15,1 enplegu da. Araban 19,2; Gipuzkoan 14,9 eta Bizkaian 13,6.

ENPRESAK

Enpresen (establezimenduen jardueraren euskarri, unitate juridiko) %97,7k Euskal AEn dute egoitza; 3.785ek estatuaren gainerakoan. 79.911 enpresak, erdia pasatxok, Bizkaian dute egoitza; 52.928k (%33,5ek) Gipuzkoan; 21.462ek (%13,6k) Araban.

Enpresen batez besteko tamainak lehengoan dirau: 5,5 okupatu enpresako, 5,0 establezimenduko. Nortasun juridikoan, bada alderik. Nortasun juridikoaren titularra pertsona fisikoa denean, 1,4 enplegu, bai enpresako, bai establezimenduko; gainerako forma juridikoetarako batez besteko horiek 11,4 eta 9,3 pertsona dira, enpresako eta establezimenduko.

ENPRESA-DEMOGRAFIA

Euskal enpresetan baditugu gazte samarrak. Euskal AEn ari direnen %32,7 bost urte zahar da edo gutxiago; bi urte do gutxiagokoak, %17,2.

Establezimendu errotaziorik handienak: Merkataritza, garraioa eta ostalaritza (alta guztien %29,5, baje %33,1); Jarduera profesional eta lagungarriak (alta guztien %18,4 eta baje guztien %17,1); Eraikuntza (alta guztien %17,6, baje guztien %17,8); guztira 281 establezimendu gutxiago 2016an zehar.

Pertsona Fisikoaren nortasun juridikoarekin sortutako establezimenduetan gertatzen dena azpimarratu behar: alten %65,2 eta baje %66,3.

Pertsona fisiko diren establezimenduetan dugu enplegatuen alten %36,3 eta baje %41,9. Sozietate mugatuetan alten %33,3 eta baje %31,2.

Establezimenduen tamainaren arabera, geruzarik dinamikoena 2 enplegu edo gutxiagokoa da, ohi bezala. Berak bakarrik alta guztien %90,3 eta baje guztien %91,1 hartu ditu.

Establezimendu handien (50 langile edo gehiagokoen) geruzan alten %0,3 eta baje %0,1, besterik ez. Aldiz, enplegatuen alta guztien %14,9 eta baje %9,4.

Establezimenduen demografia. Euskal AE. 2017/01/01

Jardueraren arabera	Altak	Irteerak	Nortasun juridikoaren arab.	Altak	Irteerak
Total	15.015	15.296	Guztira	15.015	15.296
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	896	767	Pertsona fisikoa	9.794	10.141
Industria, energia eta saneamendua	567	853	Akziokako elkarteak	324	544
Eraikuntza	2.636	2.725	Elkarte mugatua	3.347	3.241
Merkataritza, garraioa eta hostalaritza	4.426	5.060	Bestelako elkarteak	1.461	1.301
Informazioa eta komunikazioak	433	397	Bestelako forma juridikoak	89	69
Finantza jarduerak eta aseguruetak	301	387			
Onibar-jarduerak	277	276			
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	2.757	2.623			
Herri administrazioa, hezkuntza eta osasuna	1.554	1.198			
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	1.168	1.010			

Iturria: Eustat. Enpresak sortzearen eta ixtearen estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62